

-HARREMANAK

Gure bezeroak mota desberdinetako estiloa duten pertsonak izango dira, adin desberdinetakoak eta jasangarritasunaren baloreei garrantzia ematen dietenak. Gure helburua bezero hauen beharrak asetzea da.

Gure bezeroekin gehien erabiliko dugun harreman mota **pertsonala** da. Zuzenean gure dendara etorriko baitira eta bertan adostuko ditugu bakoitzaren gustuen arabera diseinuak.



Bestetik internet **webgunearen** bidez mantenduko dugu harremana bezeroekin. Bertan diseinu desberdinak zintzilikatuko ditugu eta aukera izango dute haiek ikusteko eta erosteko. Gainera, zalantzak argitzeko atal bat egongo da.

Telefono bidez ere komunikazioa mantenduko dugu bezeroekin.

Bezeroak erakartzeko publizitate kartelak egingo ditugu gure denda ezagutu dezaten eta sare sozialeen bidez ere hainbat gauza iragarriko ditugu.

